

**Espedientearen kodea:** 2025ZZ020009

**Espedientearen gaia:** 2025 urtean Xanisteban jaietan ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak.

**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

## DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOen.

Era berean, 2024ko urriaren 30ean onartu zuen Oiartzungo Udalbatza Osoak “Oiartzungo Udalaren 2025-2027 dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

2025/04/29an Udal Tokiko Batzarrak “2025 urtean Xanisteban jaietan ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen.

Horretarako, 60.000 € ko izendapena egin zuen Udalak 2025 urteko 1 0331.481.338.00.10.2025 zenbakidun partidaren kontura (A-974-2025).

Dirulaguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen araudia.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea maiatzak 1etik 31a arte ireki zen.

Epearen barruan, 29 kultur ekintzetarako eskaerak aurkeztu dira. Ekintza hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko 57.205 € ko dirulaguntza eskaerak aurkeztu dira.

Dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta eranskinetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak hartu dira kontuan.

Elkarte eskatzaileek euren ekintzei buruz aurkeztutako datuak baloratu dira, oinarrietan jasotzen denaren arabera.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honetako aurrekontua, onartutako eskaeren puntuaren batura artean zatitu da. Jarraian, elkarte bakoitzari dagokion puntu kopurua, puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Kultura Zerbitzuko arduradunak uztailaren 14ean gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

## ERABAKI DUT

Lehena.- Epearen barruan aurkeztutako eskaerak aztertuta eta deialdiaren oinarrien arabera, 2025 urtean Xanisteban jaietan ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena onartzea, erantsitako taulan txertatzen dena.

- Eskaerak ebaluatzeke irizpideen garapena oinarrien arabera:

Dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta eranskinetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak hartu dira kontuan.

Elkarte eskatzaileek euren ekintzei buruz aurkeztutako datuak baloratu dira, oinarrietan jasotzen denaren arabera.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honetako aurrekontua, onartutako eskaeren puntuaren batura artean zatitu da. Jarraian, elkarte bakoitzari dagokion puntu kopurua, puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Eskaerak aztertuta, erantsitako taulan adierazitako puntuazioa lortu du elkarte bakoitzak, eta ondorioz, adierazitako dirulaguntza ematea proposatzen da.

Bigarrenena.- Epearen barruan, aurkeztutako eskaerak aztertuta, 2025ean Oñartzun aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkartei banatzeko eta ordaintzeko proposamena, erantsitako taulan txertatzen dena, onartzea, guztira 57.205 € ko dirulaguntzak onartuz Oñartzungo Udalaren 2025 urteko aurrekontuko 1 0331.481.338.00.10.2025 (A-974-2025) zenbakidun partidaren kontura.

Hirugarrenena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona, hau da 45.764 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, 11.441 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

XANISTEBANAK 2025: DIRULAGUNTZAK

| EKINTZA                                                 | PUNTUAK<br>GUZTIRA | ESKATUTA<br>LAGUNTZA | LAGUNTZA   | ORAIN<br>ORDAINDU |
|---------------------------------------------------------|--------------------|----------------------|------------|-------------------|
| ARTASO ELKARTEA: SOKATIRA                               | 82                 | 3.500,00 €           | 3.500,00 € | 2.800,00 €        |
| LARTAUN ABESBATZA: KANTU<br>KANTARI                     | 47                 | 650,00 €             | 650,00 €   | 520,00 €          |
| MARTZELINA ELKARTEA: BERTSO<br>SAIOAK                   | 67                 | 3.288,00 €           | 3.288,00 € | 2.630,40 €        |
| ELIZALDEKOAK GURASO ELKARTEA:<br>HAURRENTZAT EKITALDIAK | 87                 | 3.075,00 €           | 3.075,00 € | 2.460,00 €        |
| HAURTZARO IKASTOLA: ZAHARREN<br>EGOITZA BISITA          | 61                 | 500,00 €             | 500,00 €   | 400,00 €          |
| HAURTZARO IKASTOLA: : AXULAR<br>DANTZA TALDEA           | 67                 | 1.700,00 €           | 1.700,00 € | 1.360,00 €        |
| HAURTZARO IKASTOLA: XAKE<br>TXAPELKETA                  | 49                 | 400,00 €             | 400,00 €   | 320,00 €          |
| HAURTZARO IKASTOLA: TXOKO<br>JOLASAK                    | 52                 | 600,00 €             | 600,00 €   | 480,00 €          |
| HAURTZARO IKASTOLA: DISKOBERRI<br>FESTA                 | 63                 | 1.000,00 €           | 1.000,00 € | 800,00 €          |
| HAURTZARO IKASTOLA: JOLAS<br>PARKEA                     | 74                 | 3.905,00 €           | 3.905,00 € | 3.124,00 €        |
| HAURTZARO IKASTOLA:<br>TXOKOLATADA                      | 59                 | 400,00 €             | 400,00 €   | 320,00 €          |
| ITURRI BERRI ELKARTEA: HERRI<br>KIROLAK                 | 55                 | 2.250,00 €           | 2.250,00 € | 1.800,00 €        |
| MINDARA ELKARTEA: PILOTA<br>EGOKITUA                    | 51                 | 840,00 €             | 840,00 €   | 672,00 €          |

|                                                           |      |             |             |             |
|-----------------------------------------------------------|------|-------------|-------------|-------------|
| IBARGAIN ELKARTEA: SAGARDO<br>LEHIAKETA                   | 95   | 1.490,00 €  | 1.490,00 €  | 1.192,00 €  |
| AIA ASKA ITZAN ANIMALIAK:<br>GOSARITXOW ETA UR PUZGARRIAK | 108  | 3.263,00 €  | 3.263,00 €  | 2.610,40 €  |
| BIYURRIENEA GAZTEEN ELKARTEA:<br>ELEKTROTXARANGA          | 89   | 1.780,00 €  | 1.780,00 €  | 1.424,00 €  |
| GAZTE IZANAK ELKARTEA: MUS,<br>TRUK, TOKA TXAPELKETAK     | 55   | 1.000,00 €  | 1.000,00 €  | 800,00 €    |
| OIARPE ELKARTEA: PILOTA JAIALDIA                          | 61   | 1.530,00 €  | 1.530,00 €  | 1.224,00 €  |
| OIARPE ELKARTEA: TRUK TXAPELKETA                          | 38   | 150,00 €    | 150,00 €    | 120,00 €    |
| OIARPE ELKARTEA: PILOTA<br>TXAPELKETA                     | 54   | 2.200,00 €  | 2.200,00 €  | 1.760,00 €  |
| IDIYAZALEAK ELKARTEA: IDI DEMA                            | 75   | 4.002,00 €  | 4.002,00 €  | 3.201,60 €  |
| AUZOKALTE ELKARTEA: ZEZENAK                               | 34   | 1.000,00 €  | 1.000,00 €  | 800,00 €    |
| AUZOKALTE ELKARTEA:<br>DANBORRADA                         | 46   | 1.500,00 €  | 1.500,00 €  | 1.200,00 €  |
| SOINUENEA: ERRALDOIAK,<br>KALEBUELTAK                     | 87   | 4.800,00 €  | 4.800,00 €  | 3.840,00 €  |
| GIRIZIA ELKARTEA: PALA TXAPELKETA                         | 73   | 1.000,00 €  | 1.000,00 €  | 800,00 €    |
| OTXE ELKARTEA: TXIRRINDULARI<br>SARIA                     | 85   | 3.300,00 €  | 3.300,00 €  | 2.640,00 €  |
| ALDEGUNA ELKARTEA: DANTZA<br>TXAPELKETA                   | 76   | 2.245,00 €  | 2.245,00 €  | 1.796,00 €  |
| MUNANIER ELKARTEA: DJ<br>EMANALDIAK                       | 68   | 1.250,00 €  | 1.250,00 €  | 1.000,00 €  |
| OAFE FEMINISTA ELKARTEA                                   | 107  | 4.587,00 €  | 4.587,00 €  | 3.669,60 €  |
| GUZTIRA                                                   | 1965 | 57.205,00 € | 57.205,00 € | 45.764,00 € |

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



| Sinaduren laburpena / Resumen de firmas |                                                  |
|-----------------------------------------|--------------------------------------------------|
| Titulua / Título:                       | 2025ZZ020009-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA) |